

LEZO AUTOBIAREN AURKA TINKO

EGUNEZ EGUN



1994ko abenduaren 22a: Alondegian egindako asanbalda herrikoia-oren ondoren Lezoko Autobiaren Aurkako Herri Ekimena sortzen da.

1995eko urtarrilaren 17a: 1. Martxa informatiboa Autobiak kaltetuko dituen lurraldeetatik. 15 pertsonak parte hartzen dute.


Urtarrilaren 24a: Herri Ekimenak Altamirako auzo elkarteetan txarla bat eskeintzen du. 20 bizilagun inguru elkar-tzen dira.

Otsailaren 28a: Autobiaren Aurkako rock jaialdia Txerrimuñon.

Maiatzaren 9a: Herriko hainbat artis-tek Autobiaren inguruan arte erakusketa bat antolatzen dute.

Erakusketatik 100 pertsona inguru pasa-tzen dira.





26a: Autobiaren Aurkako Herri Manifestoa aurkezten da prentsaurreko baten bidez.

Manifestoaren aldeko sinadura bilketa hasten da. Bertan autobia gelditzeko eskatu eta peajea kendu, garraio kolektiboa egokitu eta txirrindulari eta oinezkoen alde sinatzen da.

30a: Herriko abeslari eta musikariek osatutako "Inposaketari garrasika" maketa kaleratzen da.

Ekainaren 6a: Foru Aldundiak probisionalki proiektua aprobatazen du.

15a: Oroitzene euskaltegian autobiarri buruzko txarla eta diapositiba emanaldia. 25 ikasle inguru biltzen dira.

26a: Kale nagusian mural margo-keta.

27a: Diputazioan autobia behin behineko proiektua onartzen dute.

Uztailaren 5a: Pysbe auzoan txarla bat ematen da. 10 bizilagun elkartzten dira.

7a: Mural berri bat margotu da Polentzarrene kalean.

14a: II. Mendi martxa informatiboa. 27 pertsona elkartu ginen.

24a: Eguzkik antolatutako TXIRRINCA eta bizikleta martxa Lezon bukatzen da.

Abuztuaren 12a: Autobian alegazioak sartzeko epea zabaltzen da.

Irailaren 14a: Herriko abeslari eta musikariek "Inposaketari Garrasika" ikuskizuna zuzenean eskeintzen dute herriko plazan.



18a: Herri Ekimenak prentsaurreko bat eskeintzen du eta dagoeneko 950 sinadurak babesten dute manifestoa.

21a: Herri Ekimenak aurkeztutako mozioa udal plenoan HBko zinegotziei baiezkoarekin eta beste alderdien aurkako botoekin onartua izango da. Mozioan manifestoa sinatzea eta alegazioak aurkeztea eskatzen zaie.

Udalak autobiarren proiektua bertan behera uzteko eskatzen du eta era berean A-8 autopistatan peajea kentzeko eskatu, garraio kolektiboa bultzatu eta oinezko eta txirrindularien alde jokatzeari onartzen du.

Irailaren 24an: Donostian, Batzar Nagusietan Herri Ekimenaren protestaldia. Lezok ez du nahi autobiarik.

29an: Herri ekimenak alegazioak aurkezten ditu Diputazioan.

Urriaren 3a: Asanblada orokorra alondegian. 30 lagun elkartu gara.

20a: Orereta eta Lezo arteko mugan ordu erdiko bide mozketak egiten da. 50 pertsonak parte hartzen dute.


22a: Lau Haizeta parkearen inaugurazioan Herri Ekimenaren protestaldia diputadu generalaren aurrean.

30a: Bi mural margotu dira Altamiran.

Azaroaren 11a: III. Ibilaldi informatibo errebindikatiboa. 25 pertsona bildu ginen.

17a: Bigarren aldiz bide mozketak Renfe ondoan. 50 pertsona ertzantzak disolbatzeko mehatxua egiten du.

25a: A-8 autopistaren Arraguako peajea. Herri Ekimenaren ekintza. Ordu betez eta ertzantza etorri arte kotxe ugari ordaindu





gabe pasatzen dira. Peajerik ez.

31a: Oinezkoen eskubideak aldarrikatzeko Herri Ekimenaren ekin-tza berria Lartzabalen. Bertan oinezkoentzat tunel zahar bat ireki eta txukuntzen da.

Abenduaren 18a: Herri Ekimenak garraio eta azpiegitu-ren diputadu den Irizarrekin bilera diputazioan.

Herri Ekimenak zementu zaku bat eta jostailuzko kamio txo bat oparitzen dio.

Diputazioan 15 pertsona enkartelaturik egon dira.



21a: Sto Tomasetan txorimalo leihaketan autobia-aren aurkakoa saritua izan da.

22a: Lezotik Oreretara enkartelada bat burutzen da 75 pertsonen artean. Denok gara kaltetuak Oreretan PSOE-EA eta PNV alderdien egoitzak eta Udala enpapelatzen dira.



96ko urtarrilaren 2a: Herri Ekimenak Oiartzungo udalari Lartzabalen zabaldutako tunelaren txukunketa eta egokitzea egitea eskatzen dio.

13a: Altamirako bidegurutzean oinezkoen aldeko ekintza berria. Bidegurutzean oin erraldioen arrastoak margotzen ari zirela, ertzantza etorri, jendea identifikatu eta lan tresnak lapurtzen ditu.

16a: Herri Ekimenak Lezo eta Orereta artean oinezkoek dituzten zailtasunak eta hobekuntzen zerrenda bat uzten du Lezoko Udalaren eskuetan.

Urtarrilaren 20a: Herri Ekimenak garraio kolektiboaren aldeko ekintza berri bat burutzen du. Hondarribiatik Donostiara doan autobusa Lezotik barrena desbideratzen da.



San Sebastian eguna dela eta Herri Ekimenak Diputazio aurrean enkarteladak bat egiten du.

24a: Herri Ekimenak Lezo eta Kaputxinos batzen dituen herribidearen egoera arriskutsua salatzen du.

31a: Diputazioan Lezoko Autobidearen 1. Fasearen aurkezpena egiten da.

Herri Ekimenak aurkeztutako alegazioek ez dute erantzunik.

Herri Ekimeneko hainbat kide Diputazioko atean kateatzen dira ertzantza etorri arte.

Otsailaren 6a: Herri Ekimenak prentsaurreko bat eskeintzen du Autobia gelditzeko eskatuz.

7a: Bai Renfe eta bai Lezoko eta Oreretako Udalei Lezo eta Kaputxinos arteko herribidearen konponketa eta txukunketa eskatzen zaie.





10a: Altamira auzoan zuhaitz landaketa txikizioa salatzeko.

16a: Altamira auzoan argi itzalke eta kazerolada egin da.

21a: Herri Ekimenak deiturik Herri asanblada egin da. Bertan 60 pertsona inguru elkartu gara.

27a: Herri Ekimenak enpresa eraikitzaileei subastan parte ez hartzeko eskatzen die.

28a: Protesta berria. Hauteskunde garaian Herri Ekimeneko hainbat kide EAK Irunen ospatzen zuen mitin batetara sartzan saiatzen dira, alderdi honen jarrera salatzeko.

Martxoaren 6a: Herri Ekimenak eskeinitako hitzaldia Oreretako gaztetxean. Bertan 30 lagun elkartu dira.

10a: Bidegorrien aldeko txirrinda martxa bailaran zehar.

13a: Koldo Mitxelena institutoan hitzaldia Herri Ekimenaren eskutik. 20 pertsona.

14a: Hitzaldi berria institutoan oraingoan euskaraz. 70 lagun elkartu dira.

19a: Altamirako bazkideek "bide judiziala" hartzearen alde agertzen dira egindako bozketaren arabera.

20a: Herri Ekimenak Madrilen ospatzen du feriara gutun bat bidaltzen du. Enpresa eraikitzailea subastan ez sartzeko eskatuz.

27a: Abiadura haundiko trenaren aurkako asanblada eta Herri Ekimenak informazio, sensibilizazio eta mobilizazio astea antolatzen dute.

Lezón "Garapena eta Askatasunari" buruzko txarla Beltzaren eskutik. 40 pertsona elkartu dira.

AHTren aurkako erakusketa mugikorra Lezoko kaleetan ikusgai.

Martxoaren 28a: AHT eta Lezoko Autobiari buruzko hitzaldia Oiartzungo kultur etxean 25 pertsona bildu dira.

29a: Oreretako Xenpelar aretoan "Garraioen garapenari" buruzko txarla eztabaida AEDENAT taldeko kide baten eskutik. 25 pertsona bildu dira.

30a: Ez AHTrik ez Autobiarik lemapean kalejira Oreretan 50 pertsonen parte hartu dute.

31a: Abiadura haundiko trena eta autobiaren aurkako ibilaldia. 100 pertsonen parte hartu dute. Ondoren bazkaria eta jaialdia Txintzarri elkartean.

Apirilaren 1a: Altamirako bizilagunek Diputazio aurrean prentsaurrekoa eskeintzen dute Autobia gelditzeko eskatuz eta auzoko etxeen egoera salatuz.

16a: Expropiazio aktak jasotzen dela eta Herri Ekimenaren protestaldia Oreretako Udaletxeko pleno aretoan. Ondorioz bertan behera geratzen da.

17a: Protesta berria oraingoan Oartzungo Udaletxean.

19a: Herri Ekimenak mozio berri bat aurkeztu du Lezoko Udalean. Udalak moratoria bat eskatzen du, hauzietara jotzea erabaki eta manifestapenera dei egin.

Desobedientzia eskatzen zuen 6 puntu bat atzera bota da.

20a: Herri Ekimenak "Contencioso administratiboa" aurkezten du epaitegian Lezoko Udalak gauza bera egiten du epearen azken egunean.

Autobiaren aurkako rock jaialdia Txerrimuñon. Bertan FAMILIA POLLOE AMEN eta HONAKO PUTZUAK taldeek parte hartzen dute.

26a: Hitzaldia Zamalbideko institutoan bi txandetan. Erderaz 45 pertsona elkartu dira eta euskaraz 60 inguru.

27a: Herri Ekimenak deiturik eta AUTOBIA EZ DA KONPONBIDEA lemapean manifestapen jendetsua. Lezotik atera eta Orereta zeharkatu ondoren Arraguako peajejan eman zaio amaiera. 850 pertsonak parte hartu dute.

29a: Herri Ekimenak nahitanahiezko expropiazioen aurkako protesta egiten du Lezoko herriko enparantza belarrez beteaz. Diputazioak lurrak lapurtu dizkigu Udalaren kolaborazioaz.

30a: Expropiazioen aurkako ekintza berria oraingoan Diputazio aurrean. Belarra zabaldu zen eta bi pankarta zabaldu "Autobia ez da konponbidea" "Diputazioak lurrak lapurtu dizkigu".

Maiatzaren 1a: Diapositiba emanaldia eta hitzaldia euskaltegian.

HERRI EKIMENA

